

Kutxabankek **29 bulego** ditu **Castello, Valentzia, Alacant, Murtzia** eta **Albacete** probintzietan

Alfonso Blancok bere gain hartu du Kutxabankeko eskualde honen zuzendaritza

- **Banku-negoioaren arlo guztien hazkundera sendotzeaz arduratuko da, hipoteka-maileguen alorrean bereziki**
- **Kudeaketa espezializatuaren aldeko apustuari eutsiko dio, bereziki Banka Pertsonalari eta merkataritza-establezimenduen kudeaketari dagokienez**

2021eko otsailaren XXa. Kutxabankek Alfonso Blanco izendatu du **Castello, Valentzia, Alacant, Murtzia** eta **Albacete** probintzietako **29 bulegoak** barne hartzen dituen eskualdeko zuzendari, **Levanteko zuzendaritza** berriaren barruan dauden bulegoak urtarrilaren 1az geroztik.

Alfonso Blancok 25 urtetik gorako eskarmentua du banka-sektorean, eta duela 15 urtetik hona ari da lanean Kutxabanken, ardura-lan ugaritan Valentzia eta Murtziako erkidegoetan. Ekonomia Zientziak ikasi zituen Zaragozako Unibertsitatean, Finantza Aholkularitzako ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean, eta Higiezinaren Kreditu Legearen CUNEF akreditazioa du.

Eskualde-zuzendaritza berriaren helburuetako bat izango da sendotzea Kutxabankek azken urteetan merkatu-kuotari dagokionez Levanten izan duen hazkundera.

Kutxabank erreferentea da **hipoteka-maileguetan** eta beste arlo batzuetan. Gaur egun, hipoteken **merkatu-kuotaren** % 7 dauka Valentzia eta Castelloko probintzietan, non % 65eko hazkundera izan duen azken lau urteetan, eta % 5 inguruko kuota, Alacant-Murtzia eskualdean, % 96ko gehikuntzarekin 2017az geroztik.

Kutxabankek, Levanten, bere lantaldearen kudeaketa espezializatuaren aldeko apustuari eutsiko dio, **140 lagunek** osatutako lantaldea, MIFID eta LCCI akreditazioak dituztenak.

Formakuntza espezifikoko horri esker, **Banka Pertsonalera** bideratuta jarraituko du kudeaketa espezializatuak, dinamismo handiko zerbitzu eskusiboa, esponentzialki hazi dena bezero berrien erakarpenari esker.

2021ean, handitzen jarraitu du ere Kutxabankeko Banka Pertsonalak kudeatutako ondareak, eta **20.242 milioi euroren** negozio-bolumenera iritsi da dagoeneko.

Segmentu horrek barne hartzen du Kutxabanken sare txikizkariko bezero guztien % 5 gutxi gorabehera, bezeroen baliabideen guztizkoaren % 32 direnak, baita balantzez kanpoko baliabideen % 56 ere, zorro delegatuak, inbertsio-fondoak eta aurreikuspen-planak nagusiki, epe luzerako aurrezkiaren zati handiena direnak.

Nabarmentzekoa da iaz Kutxabankek **66 milioi euro** baino gehiago kaptatu zituela **balantzez kanpoko baliabideetan** eskualde honetan, inbertsio-fondoak eta aurreikuspen-planak nagusiki, merkatuan eta bere bezeroen artean sortzen duen konfiantzaren erakusgarri.

Merkataritza-establezimenduen kudeaketa izango da Alfonso Blancoren lantaldearen beste ardatz estrategikoetako bat. Kutxabankek jarraituko du laguntza espezializatua ematen establezimendu ertain eta txikiei, baita profesional liberal eta autonomoei ere, produktu espezifikokoak eskainiz tarifa eta zerbitzu lehiakorrenekin.